

KONTROL MOZIOA

POBREZIA ENERGETIKOA EKIDITEKO BULEGOAREN INGURUAN

Olaia Duarte Lopezek, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udaltzaren azter dadin. Mozioa 2019ko martxoaren 11n Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Otsailaren 4an hiriko pentsionisten kolektiboak honako eskaera hau aurkeztu zuen erregistro bidez (199/3192): *pobrezia energetikoaren ondorioak gero eta jende gehiagok jasaten duela salatzen dugu eta udal gobernari eskatzen diogu energiaren bulego bat antolatu dezala, pobrezia energetikoarekin lotuta dauden beharrak detektatzeko eta bideratzeko.*

Aurkeztutako dokumentuan pentsionisten kolektiboak egiten duen eskaera Espainiako estatuko hainbat hirietan martxan jarri den inizatibaren antzekoa da. Esate baterako, 2018ko azaroan Valentziako Udalak ireki zuen horrelako ofizina bat, pobrezia energetikoari aurre egin ahal izateko, hiriko %23ari eragiten dion kaltea baita.

Pentsionisten kolektiboak dioenez, orain arte ez du erantzunik jaso udal gobernaren aldetik.

Bestetik, gogorarazi behar dugu abenduan hiriko pentsionisten egoera ekonomikoa hobetzeko hainbat neurri onartu genituela udaltzaren. Gure kontrol mozioak honako hau esaten zuen eta oraindik ez dugu berririk izan egin beharreko diagnostikoaren inguruan:

1.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernari martxoko eta iraileko udaltzarretan onartutako neurriak betetzeko baliabideak jarri ditzala, Alderdi Ederreko Pentsionisten plataformak egindako eskaerarekin bat eginez.

2.- Udaltzaren hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernari hiriko emakume pentsionisten pobreziaaren inguruko diagnostikoa egiteko baliabideak jarri ditzala.

Hori dela eta, martxoko batzordeetan interpelazioa aurkeztu dugu eta gizarte-ekintzako delegatuak adierazi duenez, pentsionisten kolektiboak egindako proposamena interesgarria iruditu zaio udal gobernari eta hurrengo enplegu sustapenean kokatu daitekeen zerbitzua dela uste dute, energiaren faktura bideragarria nola egin azaltzeko hiriko familiei. Dena den, delegatuak ez du epe zehatzik aipatu eta uste dugu zehaztasuna behar duen proposamen bat dela benetan burua izan dadin.

Azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

KONTROL MOZIOA:

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari idatziz aurkeztu dezala pobrezia energetikoa ekiditeko bulegoari dagokion plana eta zerbitzua noiz irekiko duen zehaztu dezala, Alderdi Ederreko pentsionisten plataformaren eskaerari erantzunez.

Donostian, 2019ko martxoaren 15ean

Olaia Duarte López
EH Bildu udal taldeko zinegotzia